



INGURUMEN-IKUSKAPENEN PROZEDURA IZAPIDETZE TELEMATIKORAKO GIDA

Edukia


1.- Zer da ingurumen-ikuskapenaren prozedura telematikoki izapidetzea?.....	2
2.- Zer behar dut prozedura hau teleizapidetzeko?	3
2.1. Ziurtagiri elektronikoa (txartel edo NAN elektronikoak)	3
2.2.- Teleizapidetzeko behar diren ekipo informatikoak eta teknologia	4
3.- Teleizapidetzea. Zer egin behar dut espedienteak ikusteko, haiei erantzuteko edo dagokien dokumentazioa eransteko?	5
3.1. Ikuskapen Zerbitzuak hasiera emango dio, ofizioz.	5
3.2. Ikuskatutako enpresak dokumentazioa jasotzen du.....	5
4.- Ordezkarien erregistro elektronikoa. Zer egin behar da langile bat enpresaren ordezkari gisa gaitzeko?	7
5.- Laguntza eskatzea teleizapidetze-prozesuan.....	8

1.- Zer da ingurumen-ikuskapenaren prozedura telematikoki izapidetzea?

Ingurumen Sailburuordetzak bide telematikoak erabiliz bidaliko ditu ingurumen-ikuskapenaren prozedurari loturiko komunikazioak, errekerimenduak, jakinarazpenak, eta abar. Era berean, enpresek bide elektronikoak erabiliko dituzte errekerimenduei erantzuteko edo dokumentazioa eransteke.

Ikuskapenak orain arte bezala egingo dira: igorritako dokumentuak aztertuz, edo instalazioak ikuskatu, eta dagokion akta eginez.

Jakinarazpen guztiak eta haiei loturiko espedienteak [Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa](https://euskadi.eus/y22-home/es)¹ kudeatuko dira, **Nire kudeaketak** ataletik.



¹ Eusko Jaurlaritzako egoitza nagusia: <https://euskadi.eus/y22-home/es>

2.- Zer behar dut prozedura hau teleizapidetzeko?



2.1. Ziurtagiri elektronikoa (txartel edo NAN elektronikoa)

Nire kudeaketak atalera iristeko, ziurtagiri digital bidez identifikatu behar duzu. Ziurtagiria lortzeko, ikusi: [Nola eskatu ziurtagiri bat](#)².

Enpresaren IKFari loturiko espedienteetara *Nire kudeaketak* ataleko postontzitik iristeko, honako hauek behar dituzu:

- enpresaren IFZri loturiko erakunde-txartela, edo
- enpresa ordezkatzeko gaitasuna, gutxienez ingurumen-ikuskapenen prozeduretarako. Kasu horretan, hauek dira bitartekoak: txartel korporatiboa, herritar txartela, NAN elektronikoa,...(aurrerago azalduko dugu zein den ordezkari gisa gaitzeko prozesua).

Hona hemen zein diren gehien erabiltzen diren txartelak eta horien erabilerak:

Ziurtagiriak, eta haiekin egin daitezkeen izapide telematikoak	
	<p>Erakunde-ziurtagiriak edo -txartelak (txartel urdina).</p> <p>Txartel urdinarekin, zuzenean irits daiteke <i>Nire kudeaketak</i> ataleko postontzira, eta enpresaren IFZri loturiko espedientei buruzko izapideak egin: espedienteak ikusi, informazioa eman eta enpresaren izenean izenpetu.</p>
	<p>Ziurtagiri edo txartel korporatiboa (txartel txuria).</p> <p>Espedienteak ikusteko, dokumentazioa eransteko eta izenpetzeko, ordezkari beharko da, legezko ordezkariak esleitua.</p> <p><i>Nire kudeaketak</i> ataletik, <i>Espedienteak ordezkari gisa</i> atalera iritsiko zara.</p>
	<p>Herritar-ziurtagiria edo -txartela (txartel berdea).</p> <p>Espedienteak ikusteko, dokumentazioa eransteko eta izenpetzeko ordezkari gisa gaituta egon beharko da. Gaikuntza hori legezko ordezkariak esleituko du</p> <p><i>Nire kudeaketak</i> ataletik, <i>Espedienteak ordezkari gisa</i> atalera iritsiko zara.</p>
	<p>NAN elektronikoa</p> <p>Espedienteak ikusteko, dokumentazioa eransteko eta izenpetzeko ordezkari gisa gaituta egon beharko da. Gaikuntza hori legezko ordezkariak esleituko du</p> <p><i>Nire kudeaketak</i> ataletik, <i>Espedienteak ordezkari gisa</i> atalera iritsiko zara.</p>

Orobat kontsultatu ahal izango dira [identifikazio elektronikorako onartutako bitartekoak](#)³.


² Nola eskatu ziurtagiri bat. https://euskadi.eus/y22-tresnak/es/contenidos/informacion/egoitza_ziurtagiriak/es_egoitza/sede_solicitar_certificado.html

³ Medios de identificación electrónica admitidos: https://www.euskadi.eus/y22-educi/es/contenidos/informacion/egoitza_nire_gestioak_laguntza/es_egoitza/r01hRedirectCont/contenidos/in

2.2.- Teleizapidetzeko behar diren ekipo informatikoak eta teknologia

Gaur egun, Internet Explorer nabigatzaileak bakarrik eskaintzen du euskarria sinadura digitalerako, gainerako nabigatzaileek murriztapenak ezarri baitizkiete Java appletsei. Beraz, Windows izango da ekipoaren sistema operatibo bakarra.

Ziurtagiri digitalak erabiltzeko, Java instalatu behar zaio *Nire kudeaketak* atalera iristeko ekipoari. Bertsio hau aholkatzen dugu: [Java SE Runtime Environment 7u45](#)⁴. Javaren konfigurazioan, komeni da aukera hauek aktibatzea: *Erabili TLS 1.0, Erabili TLS 1.1 eta erabili TLS 1.2* ; era berean, komenigarria litzateke *Erabili SSL 3.0*. desaktibatzea. Horrela egin behar duzu: **Hasiera**→ **Kontrol-panela**→ **Java**, eta aukeratu **Aurreratua** fitxa:



Izenpek emandako ziurtagiriak erabiltzeko, komenigarria da hau instalatzea: [KIT IZENPE INSTALAZIOA](#)⁵. Prozedura honetan laguntza behar baduzu, jo ezazu [Izenperen CAU zerbitzura](#)⁶, telefono bidez: 902 542 542 (945 01 62 90).

[formacion/certificados_admitidos/es_cert_ele/certificados_electronicos.html](#)

⁴ Java SE Runtime Environment 7u45:

<http://www.oracle.com/technetwork/java/javase/downloads/java-archive-downloads-javase7-521261.html#jre-7u45-oth-JPR>

⁵ KIT INSTALACIÓN IZENPE: <http://www.izenpe.com/izenpe/-/informacion/puesta-en-marcha-de-los-certificados-izenpe/>

⁶ CAU de Izenpe: [http://www.izenpe.com/s15-](http://www.izenpe.com/s15-12020/es/contenidos/informacion/cau_izenpe/es_cau/cau_izenpe.html)

[12020/es/contenidos/informacion/cau_izenpe/es_cau/cau_izenpe.html](http://www.izenpe.com/s15-12020/es/contenidos/informacion/cau_izenpe/es_cau/cau_izenpe.html)

3.- Teleizapidetzea. Zer egin behar dut espedienteak ikusteko, haiei erantzuteko edo dagokien dokumentazioa eransteko?

3.1. Ikuskapen Zerbitzuak hasiera emango dio, ofizioz.


Ikuskapen Zerbitzuak enpresa bat bisitatzeko duenean, enpresak bi helbide elektronikoko emango dizkio, zeinean ohartarazpenak jasoko baititu, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikokoan irakurri gabeko jakinarazpenak dituela adierazten diotenak.

Ikuskapen Zerbitzuak hasten du teleizapidetze-prozesua: ikuskapen-txostenarekin batera jakinarazpena bidaltzen dio, edo errekerimendua, kasu bakoitzean dagokiona.

3.2. Ikuskatutako enpresak dokumentazioa jasotzen du

Ikuskapen Zerbitzuak txostena telematikoki bidaltzen duenean, sistemak ohartarazpen bat bidaltzen du ikuskatutako enpresak emandako helbide elektronikotara, ohartarazteko jakinarazpenak dituela Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikokoan, enpresaren IFKri loturiko *Nire kudeaketak* atalean.

Jakinarazpenak eta haiei loturiko espedienteak [Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikokoan](#) kudeatuko dira, *Nire kudeaketak* ataletik.



Nire kudeaketak atalera iristeko, ziurtagiri digital balidatua behar duzu (txartela, NAN, USB..., ikusi 2.1. puntua).

Jakinarazpen bat irakurtzeko, **Jakinarazpenak** atalera iritsi behar da.



Jakinarazpena hautatu, irakurri eta izenpetu egingo dugu bistaratu ahal izateko.

Behin jakinarazpena irakurrita, Administrazioari erantzun ahal izango diogu, **Espedienteak** ataletik horretarako sorturiko espedientearen bidez, **Nire espedienteak** edo **Espedienteak ordezkari gisa** fitxatik.

Horretarako, espedientearen xehetasunera joko dugu, eta **Dokumentuak erantsi** botoia hautatuta bidali diezaiokegu dokumentazioa Administrazioari: fitxategiak erantsi, eta bidalketa izenpetuko da, dagokion txartel edo ziurtagiriaren bidez, edo NAN elektronikoen bidez.

4.- Ordezkarien erregistro elektronikoa. Zer egin behar da langile bat enpresaren ordezkari gisa gaitzeko?


Espedienteak ikusi eta kudeatzeko, enpresaren ordezkari legalak langileak edo hirugarren batzuk gaitu ditzake ordezkari gisa. Bi bide ditu horretarako:

- Inprimaki espezifiko bat bete, eta ordezkari legalak eta ordezkari gisa gaitua izan denak izenpetuz. Aukera hori ikuskariak eskainiko dio enpresari, ikuskapen-bisita zehazterakoan.
- Egoitza elektronikoa, [Ordezkarien erregistro elektronikoa](#)⁷ erabiliz. Kasu horretan, erakunde-ziurtagiri bat behar da, eta ordezkari gisa gaitzeko prozesua web orrialdean egin daiteke oso osorik. Hona aukera horren xehetasunak:

Ordezkarien erregistroan inskribatzeko, enpresaren IFKri loturiko erakunde-txartela erabiliko da, eta **Pertsonak erantsi** botoia sakatuko da **Langileak** fitxatik.

Pertsonak eranstean, honako jarduketa hauek markatuko dira:

- **Eskaerak eta errekurtsioak aurkeztea, atzera egitea, uko egitea eta dokumentazioa eranstea.**
- **Datuetara iristea**
- **Jakinarazpenak jasotzea**



Ordezkatzen naute... Ordezkaria naiz...

Esleitu ordezkaritza

(*) nahitaezko eremuak

Ordezkatua

Identifikazio-Z^a *: Izen-abizenak / Sozietatearen izena *: Helbide elektronikoa:

Ordezkaria

Identifikazio-Z^a *: Izen-abizenak / Sozietatearen izena *: Helbide elektronikoa:

Jarduerak

Eskaerak eta errekurtsioak aurkeztu, ezetsi, uko egin eta dokumentazioa eman

Espedienteetara sartu

Jakinarazpenak jaso

Ordaindu

Aukeratutako prozedurak *

Prozedura guztiak Bilatu prozedura

Prozedurak	Ezabatu
(EU)Inspecciones Medioambientales Programas en actividades IPPC y no IPPC	<input checked="" type="checkbox"/> Ezabatu
(EU) Inspecciones Medioambientales No Programadas derivadas de avisos y quejas con incidencia ambiental.	<input checked="" type="checkbox"/> Ezabatu

Hasiera-Data *: 2016/03/21

Bukaera-Data: Zehazten ez bada mugagabea izango da.

+ Ordezkaritza egiaztatze dokumentua

⁷ Registro electrónico de representantes: https://euskadi.eus/y22-izapide2/es/contenidos/informacion/egoitza_ordezkarien_erregistro/es_egoitza/egoitza_representante_s.html

Ordezkaritza mugatu egin nahi bada ingurumen-ikuskapenei lotutako prozeduretara, *Prozedura guztiak* hauta-marka kendu beharko da, eta honako prozedura hauek bilatu:

- **Programatutako ingurumen-ikuskapenak, IPPC jardueretan eta IPPC ez diren jardueretan.**
- **Programatu gabeko ingurumen-ikuskapenak, ingurumenean eragina duten ohar eta kexen ondoriozkoak.**

Behin ordezkari gisa gaitzeari buruzko informazio osoa bete ondoren, *Erantsi pertsona botoia* hautatu, eta *Jarraitu* egin behar da eskaera izenpetzeko.

Ordezkari gisa gaitu dugun hirugarrenak jakinarazpen bat jasoko du posta elektronikoz, eta, berresteko, erregistroan sartu beharko du bere ziurtagiri digitalarekin. Hori fitxa honetatik egingo da: ...**ordezkatzen dut**

5.- Laguntza eskatzea teleizapidetze-prozesuan

Teleizapidetzaren edozein unetan eskatu daiteke laguntza, *Zuzeneaneko* telefono honetara deituz:

012 (astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 19:30etara*)

* Abuztuan, 14:30era arte.

Kontsultan, *Zuzeneaneko* operadoreari argi adierazi **ingurumen-ikuskapeneko prozedura** bat izapidetzen ari zarela, ez dadin nahasketarik sortu Ingurumen Sailburuordetzako beste prozedura batzuekin.